

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2011ko urtarrilaren 13a. VIII. urtea. 2.157. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Xabier Agirre, Ainhoa Garai, Aitziber Garmendia, Elene Arandia, Izaro Saizar eta Andoni Iturzaeta. I.TERRADILLOS

Bihar hasiko da neguko kultur egitaraua

'Baginaren bakarrizketak' antzezlanak eta Atila y los Unosen kontzertuak emango dio hasiera; datorren asteburuan Txolarre irriatiak antolatutako bertso jaialdia ere izango da Leidorren **02**

Mendiak ezagutzeko aukera zabala elkarteen eskutik

Tolosaldeko eta Leitzaldeko mendi taldeek ibilaldien aurtengo egutegia osatu dute; lehen txangoak igande honetan izango dira **04-5**

Intxurrek bigarren itzuliari ekingo dio asteburuan

Alegiako futbol taldea Erregional Preferentean dago denboraldi honetan; Intxurre elkartekoek mailaren «gogortasuna» nabarmendu dute **07**

Erantzun «bikaina» izan du Merkatu Txikiak

19.000 euro jaso dituzte Tolosako Laskorainek antolatu ohi duen elkartasun azokan **03**

EZAGUTU
WEBGUNE BERRIAK

www.TOLOSALDEA.hitza.info

www.IBARRALDEA.hitza.info

www.ALEGIALDEA.hitza.info

www.LEITZALDEA.hitza.info

www.TOLOSA.hitza.info

www.ANOETALDEA.hitza.info

www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

Dagoneko irekita!

EGYZKITZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

TEL. 943 67 26 13

Egitarau «duin eta orekatua»

‘Baginaren bakarrizketak’ antzezlaren euskarazko bertsioa estreinatuko dute bihar, Leidor aretoan, 20:30ean

Inauterietako irudiak biltzen dituen erakusketa izango da ikusgai Aranburun

Itzea Urkizu Kultura

Andoni Iturzaeta Kultur zinegotziak eta Jokin Ansorena kultur teknikariak *Tolosan zer?* neguko kultur egitaraua aurkeztu dute. Aurtengo aurrekontuak izoztuta geratu direnez, «zailtasunak» izan dituzte programa nahi bezala antolatzeko, baina, hala ere, azkenean «uste baino egitarau zabalagoa» eskaintzeko moduan izan dira.

«Oreka» egitarauan

Antolatzaileek neguko kultur programaren oreka azpimarratu

nahi izan dute: adin guzientzat zuzenduak diren ikuskizunak izango dira, eta arte zein kultur adierazpen desberdinez gozatu ahal izango du ikusleagoak. Aipaturiko oreka hori ere nabaria da ekitaldien ekoizpenari begira, bertako nahiz kanpoko produktzioak izango baitira oholitza gainean. Genero berdintasunari ere begiratu zaio, eta gizon eta emakumeen protagonismoa bera ere kultur eskaintza honetan orekatu izango dela nabarmendu dute.

Alde batetik, «sona handiko artistak» Tolosara etor daitezen saiatu dira, eta aurtengoan ere



‘Baginaren bakarrizketak’ antzezlaren aktoreak eta Txalo produkzioetako ordezkaria, Jokin Ansorena eta Andoni Iturzaeta Kultur teknikaria eta zinegotzia eta Izaro Saizar eta Elene Arandia, atzoko aurkezpenean. I.

aurrekontua dela eta *Mundua Tolosan* zikloa egitea ezinezkoa suertatu den arren, Bebe abeslaria eta *Crimen perfecto* antzezlaren Jorge Sanz eta Elena Furiase bezalako aktoreak gurean izatea lortu dute.

Bestalde, tolosarrak partaide diren emanaldiak ere eskaini nahi izan dituzte (Atila y los Unos eta Izaro eta Elene abeslariak kasu) eta horrek batera bertako eragileek antolatutako ikuskizun-

ak ere bai (Txolarreren Bertso Jaialdia, besteak beste).

Inauterietako iruditan

2011ko neguko kultur eskaintza- ren baitako erakusketen artean, Andoni Iturzaeta zinegotziak bereziki azpimarratu du *Jeiki jeiki!* argazki erakusketa. Tolosako Udaleko bi sail elkarlanean aritu dira honetarako, eta aspaldiko gaurietatik gaurdainoko bidaia bat egin ahal izango dute bisitariek,

Tolosako Inauterietako argazkien bidez. Datorren urtarrilaren 21ean, ostirala, erakusketaren aurkezpena izango da, 18:30ean.

Sarrerak, gaurtik aurrera eskuragarri

Ikuskizun guztietarako sarrerak gaurtik aurrera salgai izango dira, eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Bonuarekin ere eskuratu ahal izango dira, hilaren 21era bitarte.

↓ Ekitaldiak

URTARRILA

■ ‘Baginaren bakarrizketak’.

Bihar, 20:30ean, Leidorren. 1996an estreinatu zen New Yorken. Pertsonaien adin, jarrera eta aldatzeak desberdinak dira, baina denak daude lotuta baginarekin, sexualitatearekin, orgasmoarekin...

Txalok ekoiztu du euskarazko lana, eta Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai aktoreek taularatuko dute. 10 euro.

■ ‘Zuretzat gurekin... Javi’.

Bihar, 23:00etan, Fronton kafe-tegian. Zuzeneko DVDa aurkeztu berri dute, eta orain kontzertua emango dute, eurena zuzenekoak egitea baita. Doan.

■ Bertso jaialdia.

Urtarrilaren 22an, 18:00etan, Leidorren. Txolarre irratiak antolatutako saioa. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Arkaitz Estiballes

eta Jon Maia ariko dira bertsoetan. Gai jartzaile lanetan, berriz, Amaia Agirre ariko da. 10 euro.

■ ‘Mintzo’.

Urtarrilaren 28an, 20:30ean, Leidor aretoan. Dantza konpainiaren lana da. Mintzairerik, komunikazioari eta inkomunikazioari buruz eta hizkuntzak baino hobe adierazten duen gorputzaren inguruan ari da. 10 euro.

■ ‘Viaje a la Poligonía’.

Urtarrilaren 29an, 18:00etan, Topic-en. Magjaz bertako mundua da, forma hartu eta galtzen duten poligonoz josia. Bidaia honetan *Karratu* falta zaion aldean bilatzen saiatuko da. Theatre de Deux Mains taldearen lana da. Helduek 7 euro, eta haurrek 4.

OTSAILA

■ ‘Echale guindas’.

Otsailaren 4an, 20:30ean, Leidorren. Orain dela lau urte sortu zen *La Guinda* poesia eta flamenkoa uzta-

tzen dituen konpainia. David Colomo gitarra-jotzaile tolosarra dago tartean. 10 euro.

■ ‘Robot maitea’.

Otsailaren 5ean, 18:00etan, Topic-en. Bi izaki bereziren gorabeherak kontatzen dira. Pozarren bizi dira, baina, halako batean, batetik matxura izango du. 5 euro.

■ ‘Solstizio’.

Otsailaren 11n, 20:30ean, Leidorren. Luar na Lubre 1985. urtean sortutako galiziar folk musika taldea da. Disko berriaren euren esentziak eta soinu akustikoak eta lirikoak berreskuratuko dituzte. 18 euro.

■ ‘Batuta’.

Otsailaren 12an, 18:00etan, Topic-en. Taun Taun taldearen lan honetan geltoki bat irudikatzen dute. Iristen den tren bat, jendea eta mailetak alde batetik bestera, berriro iristen den tren... Helduek 7 euro, eta haurrek 4 euro.

■ ‘No me hagas daño’.

Otsailaren 18an, 20:30ean, Leidorren. Tanttaka taldearen antzezlari-

honetan begiradez ari da. Pertsonaiez, kalean edo telebistan entzundako esaldiez. 10 euro.

MARTXOA

■ Bebe.

Martxoaren 11n, 20:30ean, Leidorren. Extremadurako musikariaren disko berria Tolosan izango da, estreinako Euskal Herrian. 30 euro.

■ ‘Crimen perfecto’.

Martxoaren 18an, 20:30ean, Leidorren. Txalo produkzioen lana. Tony Wendicek Margot emaztea hil nahi du bere dirua eskuratzeko.

Planak huts egingo dio, eta emaztea da hiltzailea akabatu duena. Elena Furiase eta Jorge Sanz dira aktoreak. 20 euro.

■ ‘Paperezko istorioa’.

Martxoaren 19an, 18:00etan, Topic-en. Behi Bi’s taldearen lana. Luziak denetarik du, baina bakarrik sentitzen da. Horregatik, Tronpi txakurra oparituko diote. Helduek 7 euro eta haurrek 4 euro.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria.** Sukaldaritzan esperientzia duen emakumea eskaintzen da jate txeko batean lan egiteko. Interesatuak dei dezaldea 688 682 136 edo 688 681 257 telefono zenbakietara.

■ **Teleoperadorea.** Telefono arreta zerbitzurako langile bila gabiltza. Ezinbestekoa da euskara jakitea. Interesatuak, bidali curriculumak una@logika-line.com posta elektronikora edo deitu 943 3186 00 telefono zenbakira, 09:00etatik 17:30era.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Bolder Collie arrazako txakur arra galdu zen Errege gauean Tolosan. Ikusi edo aurkitu duenak dei dezala ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalarrua erorb. 13 behean - TOLOSA
Mag. 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13



Merkatu Txikia hamalau egunetan zehar zabalik egon da Tolosako kultur etxean, Gabonetan. I. TERRADILLOS

↓ Merkatu Txikia

DATUAK

- **Dendariak.** Guztira 152k hartu dute parte.
- **Arduradunak.** Hamalau egunetan 98 guraso, irakasle eta ikasle ohi egon dira.
- **Laguntzaileak.** 182 ikasle, DBH 3-4 eta Batxilergo 1-2 mailakoak.
- **Ekonomia.** Helburu nagusia ez bazen ere, «oso erantzun ona» izan du: 19.000 euro.
- **Iaz.** %6 gutxiago, beraz, aurreten diru gehiago bildu da.
- **Norentzat?** Diru guztia eta saldu gabe gelditu den materiala, Emaus Fundazioaren, Ibarrik misio taldearen eta Tolosaldea Sahararekin taldearen esku geratu da, «hauek baztertuekin orain arteko lana eginez jarraitu dezaten».

«Erantzun ona» jaso duen Merkatu Txikian ia 300 lagun aritu dira lanean

Asier Imaz Gizartea

Laskorain ikastolak, hamabosgarren urtez, Merkatu Txikia antolatzen zuten Gabonetan Tolosako kultur etxean. Abenduaren 26tik urtarrilaren 9ra bitarte, 19.000 euro bildu zituzten, nahiz eta hori ez izan «helburu nagusia».

Bildutako dirua Emaus Fundazioaren, Ibarrik misio taldearen

eta Tolosaldea Sahararekin taldearen esku geratu da.

Laskorainen eskertza

Laskorain ikastolak antolatzen dituzten ikastolako guraso, dendari eta gainerako herritarren eskuzabaltasunari esker izan dira eta urte urte ekimen honek jasotzen duen erantzuna azpimarragarria iruditzen zaigu.

Balantzea egiterakoan, «aur-

ten ere erantzun bikaina jaso» dutela nabarmendu dute ikastolakoek: «Bertan salgai egon diren jantziak, jostailuak, tresnak eta abar ikastolako guraso, dendari eta gainerako herritarren eskuzabaltasunari esker izan dira eta urte urte ekimen honek jasotzen duen erantzuna azpimarragarria iruditzen zaigu».

Beraz, «esker ona» elarazi die

modu batean zein bestean ekimen honetan parte hartu duten guztiei.

Horrekin batera, Laskorain ikastolakoek azaldu dutenez, «benetan pozgarria da Emaus Fundazioak, bazterketaren aurka burutzen duen proiektua, eta Tolosaldea Sahararekin eta Ibarrik misio taldeek dituzten asmoak ezagutzeko eta zabalitzeko antola-

turiko ekintzetan jaso dugun atxikimendua eta erantzun ona». Izan ere, «honi esker ehunka gaztek, gurasok, familiak eta herritarrek, azken urte hauetan, ezagutu ahal izan dugu hainbat jendek bizi duen gizarte bazterketa, bai urrutian eta baita gugandik gertu ere».

Merkatu Txikia bezalako ekimenekin berriz, ziur daude ikastolakoek «gizarte solidarioagoaren alde» ari direla, eta ondorioz, jarraipena izan dezan merezi duela. Kanpaina amaitu da, baina egitekoak egunerokotasunean hori dirautela gogorarazi dute Laskorain ikastolatik.

«Eskola bat eraikitzeke dirua bildu nahi genuen»

Gabonetako Merkatu Txikiarekin batera, kasu honetan Sahara ardatz hartuta, Angel Cuerdok argazki erakusketa jarri zuen elkartasun ekimen handi horren osagarri gisa.

Bidaiari tolosarrak bi helburu zituen buruan: kontzientziaketa eta laguntza ekonomikoa. Azken honi dagokionez, jasotako dirua bihar banatuko dute Laskorain ikastolako liburutegian 19:00etan.

Gustura gelditu al zara argazki erakusketaren erantzunarekin?

Alde batetik, mezua zabalitzeko helburuari begiratuta, hurbildu den jendea gustatu zaiola iruditzen zaie. Bertan jendearekin egoteko aukera izan dut eta oso modu positiboan baloratu dute; Sahararen inguruan gehiago jakin ahal izateko, erakusketa erabilgarria izan dela uste dute.

Zein da zabaldu nahi izan duzun mezua?

Nire argazki erakusketarekin batera, Tolosaldea Sahararekin el-



I. TERRADILLOS

karteko panelak egon dira. Bi erakusketa hauekin elkarteak dituen proiektuak zabalitzen saiatu gara.

Ekimen honen bigarren helburua, ekonomikoa zen. Arlo horretan nola moldatuzarete?


Tolosaldea Sahararekin elkarteak dituen proiektuen artean, Sahara hegoaldea eta Mauritaniaren arteko mugan eskola bat erai-

kitzea dago. Bide desberdinak erabilita, elkarteak dirua biltzen ari da. Argazki batzuk saldu dira erakusketaren bidez, baina salmenta ez da izan nahi bezain oparua. Hala eta guztiz ere, diru bat lortu da eta horretan lagundu dutenei esker ona azaldu behar zaie. Aurrerantzean ere saiatuko gara beste bide batzuen bidez dirua biltzen, eskola hori eraikitzeko.

Zure bidaien inguruko erakusketak egin zara, aurrez ere. Baina, zure argazkiak saltzen jarri dituzun lehen aldia al da?

Urteak daramatzat erakusketak jarri Euskal Herriko toki desberdinetan, baina nolabait, erakusketa hauek beti Kutxak babesuak izaten ziren. Ondorioz, inoiz ez nuen eduki argazki hauek saltzeko ez nahirik ezta helbururik

ere. Orain dela hilabete batzuk ordea, Saharako gatazka berriro ere nahasten hasi zen eta pausotxo bat aurrera emateko aukera banela bururatu zitzaidan. Kasu honetan, argazki erakusketa jarri eta argazkiak salduz. Lehen esan bezala, Saharako proiektu horri laguntzeko eta pauso txiki bat emateko egoera horren amaieraren alde.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Euskaldunok mendira joateko dugun joera handia da. Horren erakusgarri dira eskualdean ditugun mendi taldeak eta hauek urtean zehar antolatzen dituzten irteera guztiak. Urte guztian bada non aukeratur.

Mendia zaletasun denean

Eneritz Maiz Mendis

Zer du mendiak euskaldunentzat? Euskal Herrian ez da ligo gabeko tontorrik izango. Hainbeste jende mugitzen duen zaletasun honok berait izango du. Arkatassuna, lassatassuna, gogetarako bide ematen du, paisaia ederrez gozatzeko aukera, lagun eta familiarik ere denbora atsegi-n igarotzea ahalbidetzen du, aire garbia, osasuna...

Euria, elurra, eguzkia, hotza edo beroa egin dezake baina mendira joan nahi duenarentzat eguraldia ez da oztopo. Denborak ere ez da inolako eta zehar metro dituen ere ez. Bakotzak bere ahalbidea arabera igoko du mendia. Txiki izan edo handia, guztien saiatzen da euskalduna.

Haur, gazte edo heldu, guztiak ikusi daitezke mailan gorra edo behera. Mendi magalean etanda, hamailetako edo bazkari ederra hartuta edota sista eder bat botatzea ere mendiarik batera dator. Urtsari agur esan edo ongi etorria emateko ere askok aukeratu dute mendirako bidea.

Mendiez inguratuta bizi gara bere baso eta zelaketa batera. Eta horren erakusgarri dira eskualdean ditugun mendi taldeak. Egun pasa edota aseturatsa igortzeko aukera ederrak eskaintzen dituzte. Urteak dituztenak eta sortzen ari direnak dandae gurean. Euskal Herriko tokiok eragutzea dute helburu baina hain urrun ez dauden Pirinioetara joetokohituta hasia dute. Villabonako Aizkardi, Atxestako Sagain, Tolosako Oargi eta Alpino Uzturre, Alegiako Mendi, Asanbleako Ibarrao, Ibai Euskal Herri eta Hartzetan Raju ditugu.

Talde batzuek hilean behin egiten dute irteera, besteak hilean ez. Urteko lehen eguna kenduta, Alpino Uzturre, Oargi, Aizkardi eta Sagainek, igande honetan dute lehen irteera. Eta hurrengo



laz uztailean Aizkardioko Ozaiko oihanetik abiatu ziren Castillo de Atxer (2.384 m) gailurrera igotzeko.

dituzte. Badaude herri batzuk. Berasotz estaterako, urtean zehar tarteka antolatzen dituzte. Irtekiak izan ohi dira antolatzen dituzten irteera edo egun pasak.

Askok webguneak dituzte eta bertan eskaintzen dute informazio guztia. Pederstaten txartelak egiteko aukera ere eskaintzen dute.

Urteko lehen eguna kenduta, Alpino Uzturre, Oargi, Aizkardi eta Sagainek, igande honetan dute lehen irteera. Eta hurrengo

asetan izango dute txanda Alegia eta Ibarraok.

Leiztalde ere badu berea

Mendibil mendi taldea dute leiztaldeak. Azken urteetan, mendi bizikleta, perretxikoen bila... irteera ezberdinek antolatzen dituzte leiztalde guztietako. Aurrera kirol elkartearik batera.

Urteko lehen irteera larunbatean egongo dute eta bizikletaren irteerako dira, 09:30ean, Leiztaldeko tren geltokitik aterako dira eta antolatzaileek eskatuta kaskoa

eta ondoko gurbere eramateko beharrezko izango da.

Berriak sortzen

Tolosako Amara mendiko elkartea urtea hastearik batera sortu da. Mendi Talde honen helburua Tolosako Amara auzuneko bizilagun modifikatzei federatzeko erraztasunak eta urtean zeharrekoko hainbat mendi-ekitaldi eskaintzea dute eta abiatzen dute.

Eskualdeko beste mendi taldeak eskaintzen duten moduan, Amara sortzen duten taldeak ere,

2011. urterako federatu txartelak guzuzatuko eman beharrekoko pausu eta azalpenak <http://sites.google.com/site/omaraemendia> webgunean jartzen dituzte. Eskualdeko beste mendi taldeak eskaintzen duten moduan, Amara sortzen duten taldeak ere,

↓ Eskualdeko mendi taldeak

AIZKARDI



- **Urtarrilak 16.** Sara-Arxunia-Zugarramundi (Lapurdi).
- **Urtarrilak 30.** Villabona-Ardatz-Zubieta.
- **Otsailak 5-6.** Urmeen eski irteera, Somport.
- **Otsailak 13.** Untzue-Alaitz-Morrea (Nafarroa).
- **Martxoak 6.** Villabona-Uzturre (730m) - Tolosa.
- **Martxoak 27.** 43. Aizkardiko bizkida.
- **Apirilak 10.** Sudupe-Eretza-Garneran-Zugaztietan (Bizkai).
- **Apirilak 17.** Villabona-Bela-bieta-Urdialz-Villabona.
- **Apirilak 30-Maiatzak 1.** Balaitus Neous (Hautes Pyrenées) irteera.
- **Maiatzak 8.** Montori-Argebil-Beguz-Atharratze (Zuberoa).
- **Maiatzak 15.** Aralar.
- **Ekainak 12.** Masosa-Laraille-Lariste-Lescun (Biarne).
- **Ekainak 18-19.** Vignemale (Hautes-Pyrenées).

- **Uztailak 9-10.** Irteera, Escarra-Collarada (Huesca) uztailean 9an eta uztailean 10ean, Canfranc-Collarada-Villanua (Huesca).
- **Irailak 9-10-11.** Irteera, Spijoles-Portillon-Cabriles.
- **Irailak 17-18.** Irteera, Caute-rets-Facha-Respomuso, Respomuso-Frondeillas-Arens.
- **Urriak 9.** Andoin-Ballo-Entzia-Maestu (Araba).
- **Urriak 16.** Izi Parke Naturala BTT (Araba).
- **Urriak 23.** Villabona-Besabi-Hernani.
- **Azaroak 13.** 4. Argaki Rallya.
- **Azaroak 21-22.** Mendi Astea.
- **Abenduak 18.** Tolosa-Otsabai-Atallu (Gipuzkoa-Nafarroa).

ALEGIKO MENDI ASANBLADA



- **Urtarrilak 30.** Gethary Donibane Lohitzunera irteera.
- **Otsailak 27.** Maree Zirkuetua.
- **Martxoak 27.** Enitara irteera.
- **Apirilak 10.** Mendi Irteera eskolakoekin Pagoetara buelta.
- **Maiatzak 29.** Apellanizera mendi irteera.
- **Ekainak 19.** Mendi Irteera, Aitzkorria.
- **Uztailak 9-10.** Pirineoetara mendi irteera.
- **Urriak 30.** Urepelera irteera.
- **Azaroak 29.** Bazkideen Eguna.

ALPINO UZTURRE



- **Urtarrilak 22-23.** Irteera Zuberoa ezagutzuz.
- **Otsailak 19-20.** Nafarroa, Lizarrara.
- **Martxoak 20.** Lapurdia irteera.
- **Apirilak 10.** Gipuzkoan, Zikro jatea.
- **Maiatzak 21-22.** Behe Nafarroa irteera.
- **Urtarrilak 16.** Udana - Antzuola. Gorostiza (951 m.) eta Aroila (910 m.).
- **Otsailak 20.** Urigoiti - Zezurri, Lekanda (1.302 m.).
- **Martxoak 20.** Otazti - San Martin, Bagegain (1.154 m.) eta Larrogoko (1.014 m.).
- **Apirilak 17.** Urkilla portua-Larantz-Uarnain (1.346 m.).
- **Maiatzak 15.** Turuncun-Arnedillo, Peña Isasa (1.474 m.).
- **Ekainak 5.** Otsagabia-Isaba, Kaqueta (1.568 m.).
- **Ekainak 19.** Otsahanos-Cubillas, Union (1.430).
- **Uztailak 8-9-10.** Irteera, Amoreña, Grand Barbat (2.813 m.) eta Gavazo Cristal (2.890m.).
- **Irailak 17-18.** Irteera, Pineda

- de la Sierra, Pico San Millan (2.131m).
- **Urriak 8.** Bidarra-Amalur, Irubelakaskoa (967 m.).
- **Azaroak 20.** Ventas de Uriza-Igoa, Trinidad (1.222 m.) eta Jurmuga (1.132m.).
- **Abenduak 18.** Zaldirar - Eloi-rio, Intortora (737).

IBARRAKO BAI EUSKAL HERRIARI - HAITZETAN RAJU



- **Urtarrilak 22-23.** Coumely Ferrata - Grouffie de Hayas Grotte de Bouhadere Trabelsa (Pirineo frantsesa), Espelologia.
- **Otsailak 20.** Behorlagi mendi irteera, 07:00etatik 16:00etara.
- **Martxoak 25-26-27.** Picad'Estat mendi irteera, Valferreira.
- **Apirilak 09-09-10.** Cotiella eta Peña Montañesa Mendi Irteera Pirineoetara.
- **Maiatzak 20-21-22.** Peña Forca eta Etskaurrea Irteera.
- **Ekainak 10-11-12.** La Bidouze eta Errekalita arrollak (Kakoueta).
- **Ekainak 17-18-19.** Pala de Ip eta Punta Escarra.
- **Uztailak 1-2-3.** Tolosa-Jaka basketen edo Casco de Marborera (Ordas-Cotatuero-Casco Marboro-Faja de las Flores-Carriña-Ordas).
- **Irailak 16-17-18.** Miraval eta Feysoncio arrollak.
- **Urriak 1-2.** Tozal de Guara eta Peña Cancasiera.
- **Azaroak 11-12-13.** Urkulu eta Okabera.



laz Mendibil mendi taldekoek Irusko Trikuharrien Inguruen egun zuten itzulia.

OARGI



- **Urtarrilak 16.** Jaizibel kostatik mendi irteera, Pasa Donibanera joango dira.
- **Urtarrilak 22-23.** Coumely Ferrata - Grouffie de Hayas Grotte de Bouhadere Trabelsa (Pirineo frantsesa), Espelologia.
- **Otsailak 20.** Behorlagi mendi irteera, 07:00etatik 16:00etara.
- **Martxoak 25-26-27.** Picad'Estat mendi irteera, Valferreira.
- **Apirilak 09-09-10.** Cotiella eta Peña Montañesa Mendi Irteera Pirineoetara.
- **Maiatzak 20-21-22.** Peña Forca eta Etskaurrea Irteera.
- **Ekainak 10-11-12.** La Bidouze eta Errekalita arrollak (Kakoueta).
- **Ekainak 17-18-19.** Pala de Ip eta Punta Escarra.
- **Uztailak 1-2-3.** Tolosa-Jaka basketen edo Casco de Marborera (Ordas-Cotatuero-Casco Marboro-Faja de las Flores-Carriña-Ordas).
- **Irailak 16-17-18.** Miraval eta Feysoncio arrollak.
- **Urriak 1-2.** Tozal de Guara eta Peña Cancasiera.
- **Azaroak 11-12-13.** Urkulu eta Okabera.

- **Abenduak 16-17-18.** San Lorenzo, La Cuña eta el Gitanoro.

SAGAIN

- **Urtarrilak 16.** Alako Harriak mendi irteera.
- **Otsailak 20.** Lokiz (Araba) mendi irteera.



- **Urtarrilak 27.** Eski irteera, Luz Ardidenera.
- **Martxoak 26-27.** Irteera, Iraupen Luzeo eski kasataroa Port de Spagne-n.
- **Apirilak 10.** Mendi Irteera eskolakoekin Pagoetara buelta.
- **Maiatzak 14.** Bizkaitar irteera familia eta inguru dute, eskolakoekin.
- **Maiatzak 22.** Mendi Irteera, Iparaldea.
- **Ekainak 12.** Mendi Irteera, Aralarra.
- **Uztailak 9-10.** Barranko jaitiera, Guaranen.
- **Urriak 15.** Mendi Irteera, Iratzi.
- **Azaroak 14etik 20era.** Mendi Astea.



laz Mendibil mendi taldekoek Irusko Trikuharrien Inguruen egun zuten itzulia.

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperaren, gure komunikazio proiektuak burutu eta martxo ditugu urdinez. Apustu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berriketan.info



Lagundu gaitzazu ekonomikoki

Ekarpena egiteko bideak 50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

- Transferentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (lizen-azibenez zehaztu)
- Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean

berria taldea

Asteburu erabakigarria Saralegi leitzararentzat

Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketako bosgarren jardunaldi, erabakigarria izango da Saralegi leitzararentzat

Erredakzioa Aizkora

Asteburu honetan Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketako beste jardunaldi bat jokatu da. Hilaren 16an, igandean, 12:30ean izango dira txapelketa honetako bigarren jardunaldiak. Oraingo honetan Sakanako Arbizu herrian ariko dira, bai urrezko eta baita zilarrezko mailan ere. Eta, bertan izango da Ruben Saralegi aizkolaria ere. Gainera, asteburu hau erabakigarria izango da leitzararentzat.

Urrezko maila

Urrezko mailan berriz ere, A taldeko bi bikote lehiatuko dira elkarren aurka. Bikote hauetako bat Euskal Herriko txapelduna den Jose Mari Olasagastik eta Ruben Saralegi leitzarrek osatuko dute. Aurrera jarraitzeko azken aukera izango du bikote honek, izan ere, pasa den igandean jokatuakoa laugarren jardunaldian, Arrospeide eta Mugerza II.aren aurka galdu egin zuten. Oraingoan berriz, txapelketan aurrera jarraitu nahi badute garaipena lortu beharko dute.

Asteburu honetan, A taldeko hirugarren bikotea izango dute aurkari. Bikote hori Arriarangoa den eta Gipuzkoako txapelduna den Azurmendik eta Bizkaiko txapelduna den Dimako Atutxa II.ak osatuko dute. Bi aizkolari

hauek edizio honetan lehen debutatu duten arren, Olasagastik eta Saralegik ez dute lan erraza izango bikote honen aurka irabazi eta aurrera jarraitu ahal izateko.

Zilarrezko mailako saioa ere jokoan

Zilarrezko mailan ere beste jardunaldi bat izango dute asteburu honetan.

Etxarriko Goizeder Beltzak Er-goienko Iban Resano izango du bikote. Beraien aurka lehiatuko dira Juan Jose Erdozia etxarriarra eta Aritz Irazabal ugoarra. Bikote hauek 14 enbor moztu beharko dituzte, 6 modalitate ezberdinetan.

Beraz, asteburu honetan lehia garrantzitsua izango da txapelketan jarraitu nahi duten bikoteen artean.

Wifia erabiltzeko kode berria eskuragarri

Udaletxera jo eta eskatu dezakete herritarrek; iaz jarri zuen martxan sisteman hau udalak

Erredakzioa Areso

Aresoko internet erabiltzaileek Udalera jo dezakete egun hauetan kode edo IP helbide berria eskatzeko. Izan ere joan den urteko azarotik, Aresoko etxe eta baserri guztiek erabili dezakete internet, Wifi sistemari esker. Hala, joan den urteko lizentziak agortu dira, eta aurten zerbitzua jaso nahi dutenak, udaletxera hurbildu be-

harko dira eta kode berria eskatu. Honenbestez, egun hauetan internet konexiorik gabe izango dira Aresoko etxe eta baserriak.

Konexioa egiteko, herritarrek router izeneko kutxatxo bat behar dute eta hori ere Aresoko udaletxean eskuratu daiteke. Mikel Baraibar alkatearen hitzetan, «goizetan, bulego ordutegian izango da IP helbide berria eskatzeko aukera». Bestalde, erabiltzaileek urteko kuota ordaindu beharko dute.

Leku askotan ADSLa ezin zutelako kontratatu jarri zuen martxan ekimen hau Udalak joan den urtean. Honekin, herritar guztiei eman nahi izan diete konexio azkar hau izateko aukera.

Binakako Txapelketan jarraitzen dute eskualdeko pilotariek

Binakako Txapelketa aurrera doa, eta eskualdeko pilotariek partida ugari dituzte asteburu honetan

Erredakzioa Pilota

Asteburu honetan Binakako Txapelketaren beste jardunaldi bat jokatu dute gure eskualdeko pilotariek.

Zehazki sei partida jokatu dituzte ostirala eta asteartea bitartean. Lehenengoa, Olaizola I.a izango da. Bihar 22:15etik aurrera Getariako pilotalekuan izango da. Olaizola I.a eta Beloki, Gonzalez eta Laskurainen aurka arituko dira. Larunbatean berriz, 17:15ean Iruñan bi partida jokatu dira. Alde batetik, Bengoetxea VI.a eta Patxi Ruizek, Titin III.a eta Pascualen aurka jokatu-



Berasaluzer VIII.a eta Apraiz izango ditu aurkari Barriola-Xala bikoteak. E.E.

ko dute. Bestetik, bigarren mailako txapelketari dagokionez, Olaetxea lizartzarra Albisuren bate-ara, Ongay eta Merinoren aurka ariko dira. Igandean, bigarren mailako beste partida bat izango da. Kasu honetan, Olazabal are-soarrak eta Ladis Galarzak osatzen duten bikoteak, Rico IV.aren eta Argoterren aurka jokatu du. Partida hau Eibarren jokatu dute, 17:00etan. Jardunaldiko az-

keneko partidak Mungian izango dira, 17:00etan. Jaunarena leitzarra eta Arruti, Urrutikoetxea eta Izaren aurka ariko dira bigarren mailako txapelketan. Lehenengo mailan, berriz, Barriola leitzarra Xalarekin batera ariko da, Berasaluzer VIII.aren eta Apraizen aurka.

Partidez jositako asteburu dute aurretik eskualdeko pilotariek.

→ Laburrak

Haur danborradarako kantineren izen-ematea

TOLOSA › Aiz-Orratz elkarteak hasia da aurtengo Inauterietan prestatzen. Horregatik deialdia luzatzen die herriko elkarteek, haur danborradan kantinera gisa aurkeztu nahi dutenek izena emateko. Horretarako, interesatuek haurren argazki bat bidali beharko dute hilaren 24a baino lehen, gero programan agertu dadin.

Maite Etxaniz herritarrekin bilduko da gaur 18:30ean

BERASTEGI › Maite Etxaniz Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Saileko diputatua herritarrekin bilduko da gaur herriko nahiz Gipuzkoako gaiez hitz egiteko. Batzarra 18:30ean izango da, Ategi zentroan. Diputazioak azken 3 urteetan landutako Kudeaketa Planaren berri emango du diputatuak. Segidan, bertan bildutakoek euren iritzia eta ekarpenak aurkezteko aukera izango dute.

Film eskaintza zabala asteburuan Leidorren

TOLOSA › Zine programazio interesgarria prestatu dute Leidorren asteburu honetarako. Alde batetik, gaur Zine Forumean, *Humberto D* lana ikusteko aukera izango da. 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak. Larunbatean berriz, *Chloe* eskainiko dute. 19:30ean eta 22:30ean izango dira emanaldiak. Hurrengo egunean berriz, haurrei zuzenduta, 17:00etan Megamind izango da. 19:30ean berriz, *Beautiful*. Baita astelehenean ere, ikuslearen egunean.

Jokoan Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa

IBARRA › Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa bat jokatu da bihar Ibarren. Kepla elkartearen izango da norgehiagoka 22:00etatik aurrera. Parte hartu nahi dutenek unean bertan eman beharko dute izena. Irabazleak hurrengo faserako sailkatuko da. Baina honez gain txapeldunak, arkume bat jaso du sari gisa. Bigarren gertatzen denak bi txuleta, eta hirugarrenak, bi baserriko oilasko.

hitza
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31800 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

- Izen-abizenak: _____
- Lanbidea: _____
- Helbidea: _____
- P.K.: _____
- Posta elektronikoa: _____
- Kontu zenbakia:

- N.A.: _____
- Jaioteguna: _____
- Herria: _____
- Tel.: _____

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoak, betetik, jakinarazten dituzgu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxa-tegi automatizatu batera pasatu direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahi izanez gero, idari helbide honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa - edo harpidetza@hitza.info

Intxurre futbol taldekoek mailaren «gogortasuna» nabarmentzen dute

Irazustabarrena entrenatzaileak eta Garmendia kapitainak diotenez mailari eustea dute helburu

Imanol Garcia Alegia

Intxurre futbol taldea Lurralde-kako edo Erregional preferente mailan jokatzeko ari da aurtengo denboraldian, aurrekoan igoera lortu eta gero. Mailaren «gogortasuna» nabarmentzen dute Santos Irazustabarrena entrenatzaileak eta Eneko Garmendia kapitainak. Ez da lehenengo aldia maila horretan aritzen direla. «Maila honetan egon garen beste urteetan talde indartsuak zeuden, baina ez aurten bezain indartsuak», dio entrenatzaileak.

Lehenengo itzulia bukatu da eta egun azken bigarren doaz, 10 punturekin, salbaziotik lau puntura. Asteburu honetan Euskalduna taldearen aurka jokatu dute bigarren itzuliko lehen partida. «Lehenengo itzulia nahiko gogorra izan da», azaltzen du Irazustabarrena. «Nahiko maila ona ematen ari gara, baina ez gara partidak irabazten ari. Kontuan izan behar da talde indartsuak daudela: Urola, Mutriku, Euskalduna, Zestoa... Askok gogoko mailan arituak. Gu izango gara gure mailako herri txikiena».

Zorte pixka batekin bigarren itzulian egoerari buelta ematea lortuko dutela azaltzen dute. «Ez ditugu oso urrutiko mailari eusteko postuak», diote. Garmendiak gai-



Intxurreko lehen taldearen jokalariek eta prestatzaileak. HITZA

neratzen duenez, «partida guztiak oso borrokatuak izaten ari dira. Irabazi ditugunak ere azken minutura arte ez dira erabaki».

Joko aldetik ondo ikusten dute taldea. «Maila honetan egon ginen aurreko aldiak asko gaitik gaitzen genituen partidak. Orain gaitzen ditugunak tarte gutxiatik izaten dira. Etxean nahiko ondo gabilta», zehazten du kapitainak.

Taldea mantentzea

Horrelako herri batean talde bat mantentzea zaila dela esaten dute.

«Baten batek uzten badu, jubenilen bat igoko da, baina kanpotik jendea ekartzea zaila izaten da. Futbolarietara nahiago dute beldar artifizialean jokatzeko», azaltzen du Irazustabarrena.

Bestalde, «jendeak konpromiso gutxi hartzen du, entrenatzeko eta. Nahiago dute areto futbolean



Talde nagusiko zenbait jokalariek entrenamendu batean. I. GARCIA

edo zenbait torneotan parte hartzea, entrenatu beharrik gabe».

Tarteka jubenil batzuk sartu behar izaten dituzte lehen taldean. «Aurreko urtean ere igoera fasean sartu genituen, batzuetan lau edo bost batera», dio entrena-

zaileak. «Orain jubenil bat edo beste sartu dezakegu, baina ezin ditugu lau batera sartu. Aldea handia dago mailatik mailara. Fisikoki ere prestatuagoak daude taldeak».

Helburua maila mantentzea

da. «Igo ginean bagenekien zaila izango zela, baina behin igota ez diogu uko egingo helburuari. Nik uste dut aterako dugula», azaltzen du entrenatzaileak.

Sei talde daude Intxurren. Talde nagusiaz gain, jubenilena, kadeteena eta infantilena daude mutiletan eta nesketan kadeteak eta infantilak. Txikiak, infantil mailakoak, Intxurre zein eskolaren artean eramaten dira. Alebin mailako batzuk ere aritzen dira entrenatzen, baina partida ofizialetan ez dute parte hartzen, torneotan bakarrik.

Hamazazpi urte inguru darabmatza Irazustabarrena entrenatzen Intxurren. Astelehenetan hartzen du atsedena, beste egun guztietan futbolari lotuta du agenda. Garmendiak ere hamazazpi urte darabmatza elkartean, horietatik hamar talde nagusian. Hainbeste urtetan futbolari lotuta egoteko «gustatu egin behar zaizu eta gero giroa ere ona izan behar du», dio Garmendiak

Jokalariek eta entrenatzaileak

Garmendia, talde nagusiko kapitaina izateaz gain, kadeteen taldeko entrenatzailea da. Hemezortzi urte zituela kadeteentzako entrenatzailea behar zela esan zioten elkartetik eta ea animatuko zen galdetu zioten. Ordudunik hamar denboraldi darabmatza eginkizun horretan.

Larunbata goiz eta arratsalde normalen okupatuta izaten du. Egun kadeteen taldea Kopa jokatzeko ari da, ezin izan baita igoera faseko sailkatu. 4-3 irabazi zuten aurreko asteburuan Beasainen aurka. «Gero eta zailagoa da gazteen artean talde batean egoteko konpromisoa lortzea», azaltzen du Garmendiak. «Lehen hemezortzi urterekin esaten zuen jendeak futbola utzi egingo zuela. Egun hamalau urterekin ere erraz uzten da».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



GOIZA	OSKARRI
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	16°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebecka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tosaldekohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Eskurari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Bidegoian



KUDEAKETA PLANAREN AZALPENA

Rafa Uribarren Landa Ingurumeneko Saileko diputatua Bidegoiango dozena bat herritarrekin bildu zen herenegun. Diputazioak azken 3 urteetan landutako Kudeaketa Planaren berri eman zuen lehenik eta behin, eta gero herritarren iritzia eta ekarpenak jaso zituen. Pello Arzallus alkateak ere hartu zuen hitza datorren legegintzaldirako Lan-

da Gipuzkoa 32 programa bezalakoetatik eratorritako laguntzarik egongo den galdetzeko. «Azken legegintzaldian hutsune asko osatu dira; zehatz-mehatz, 39 proiektu burutu dira 32 herritan. Datorren legegintzaldian bestelako arloak osatuzera joko dugu, Interneteko sarbidea esaterako», erantzun zuen Uribarrenek. HITZA

Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

Agenda

MENDI IRTEERAK

- **Leitza.** Mendibil mendi elkar-teak Leitzaarreara joateko txangoa antolatu du etzirako, hilak 15. Ibilbidea bizikletaz egingo dute eta Plazaolako geltokitik abiatuko dira 09:30ean. Irteera zailtasun maila errazekoa da.
- **Asteasu.** Sagain mendi taldeak igandean, hila 16, Aiako Harrietara joateko txangoa antolatu du. Irteera plazaatik izango da 08:00etan. Izen emateko deitu 943 69 34 00 telefono zenbakira.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkar-teak igandean Jaizkibel aldera joateko txangoa antolatu du. Kostako ibilbidea egingo dute. Tolasatik 06:30ean irtengo dira Pasaia Donibanera eta Hondarrabian bukatuko dute ibilbidea. Izena emateko 688 698 642 telefono zenbakira deitu behar da edo info@oargi.org helbidera idatzi.

- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkar-teak igandean, hilak 16, txangoa egingo du. Udana mendatetik hasiko dira eta Antzuolan bukatuko dute. Gorostiaga eta Landarrats mendiak igoko dituzte. Autobusa San Frantzisko pasealekutik 08:00etan irtengo da. Iraupena 5 ordukoa da, bazkideek 11 euro odaindu beharko dute eta besteek 13 euro. Izena emateko deitu 943 65 27 89 telefono zenbakira edo alpinouzturre@hotmail.com helbidera idatzi.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Maria Luisa Gorrotxategi zegamarraren margolanak urtarila bukaera arte egongo dira ikusgai Alegiako Jubilatuen tabernan. Hamabost lan jarri ditu margolariak.

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Galtzaundi Irakurle Taldearen bilera izango da gaur kultur etxean 19:30etik aurrera. Gaurkoan Koldo Izagirrerren *Sua nahi Mr. Churchill?* liburua aztertuko dute.
- **Larraut.** Ohiko osoko bilkura gaur 19:00etan.
- **Tolosa.** Urtarrileko azken larunbetea kantu-jirako entse-ga gaur Musika Eskolan 20:00etan.
- **Villabona-Zizurkil.** Jesusen Bihotza Ikastolak Kultur Astea izango du hilaren 24tik 30era. Bertan Argazki Lehiaketa egingo dute eta parte-hartzea irekia da. Izena eman nahi dutenek gaur eta bihar egin beharko dute Villabonako eraikineko idazkaritzan. Bertan azaldu dituzte Argazki Lehiaketaren nondik norakoak.

MUSIKA

- **Tolosa.** Berri Txarrak kontzertua bihar 22:30ean Bonbeneren. Sarrerak agortuta.
- **Tolosa.** Atila y los Unosen kontzertua bihar 22:30ean Fronton kafetegian.
- **Alegia.** Gaztetxearen urteurrenari bukaera emateko Willis Drummond eta Bronze taldeen kontzertua bihar 22:30ean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Zatoz HITZAko bulegora zure mahai egutegiaren bila!

